

## S. ONAINDIA ZORNOTZAKO UDALAK OMENDUA (ITZALDIAK)

*Aurtengo kultur-aste barruan Zornotzako Udalak Aita Santiri bere 80 urtebetetzean maiatzaren 13an omenaldi andia eskeiñi eutsen.*

*Larran agertu ziran euren ekinaldietan: Eusko Jaurlaritzatik Joseba Arregi eta Mari Karmen Garmendia, Bizkaiko Abaldun Nagusia J.A. Pradera eta, Bizkaiko Batzar Nagusiko Lendakaria Anton Aurre, Euskaltzaindiko Lendakari-ordea Juan Mari Lekuona, Zornotzako alkatea J.A. Gurtubay, etab.; baita bertsolariak eta dantzariak...*

*Nere esker ona Juanjo Zearretari: berak zintan artu ebazan itzaldi ta bertso guztiak, eta laguntasun orri esker agertzen dira Karmel aldizkari onetan.*

*Omenaldi-jai oni Meza santuagaz asiera emon jakon: Aita Onaindiak meza emon eta Zornotzako abesbatzak abestu. Meza-ko itzaldia L. AROSTEGIK, Euskalerriko Karmeldarren nagustak egin eban; eta emen bere itzak:*

Santi Onaindiari eskeintzen dautsogun omenaldi au, euskera eta euskal kultura jagon, landu eta zabaltzeagaitik egiten jako. Elizgizonak, kultura arloan naiz bestetan, ez dabe berez euren eginkizuna olako omenaldien griñarren burutzen. On-egiñaren saria ona

bera da eta onaren erraiñuak zabalduz joaten ikustea. Baiña iñoz latza be izan daiteken aldi onetan, esker onez artzekoa da adiskide eta kultura-zaleen begirunezko agerpena.

Ondorengo ekitaldian gogoratuko dira bere lanaren zabala eta nondik norakoa. Esan daiguzan orain elizkizun onetan egoki leitekezan berba bi.

Gurasoen etxetik ekarren euskerea eta jakinaiaren azi ernea Karmengo anaidiko ikasketa aldian, sustraitu eban betiko emen-txe Larran egoan ikastetxetik asita aurrera. Ordurik ona, ezetariko oztopo barik alkartu aal izan ditu erri-maitasuna, erriaganako lana, eta eliz-gizon izatea.

Umetan eta gaztetan artutako eziketaren garrantzia ikusteko, au izan bear dogu gogoan: Santi Onaindiak bere euskal lana gerra ostean asterakoan, a) euskera eta euskal kultura persegituak ziran, b) eta ainbat euskaldunen artean be, euren nortasun kontzientzia lausotuta, gitxi etsi eta aaztutzera egiten zan. Bigarren au zoritxarrekoago eta mingarriago oindiño. Benetako eziketak eta kulturak norberaren jabe egiten dau, eta ez dau ez lausengu ez gogorkeri aurrean barrua makurtzen.

S. Onaindiaren idatzietako giza-doe batzuk erakutsi gura neukez.

1. Bere bizitzako beste artuemonetan lez, idazle ekintzan *baiezkortasuna* erein izan dau: bizitza osoaren aurrean eta euskal egoeraren aurrean, alaitasuna eta adorea aurkituko dozuz bere idazkietan. Ez da ori txantxak egiteko asmoaren frutua, berezko giroa baiño. Ortik, alderdi onak ikusteko jokera eta idazleak naiz beste arloetako ekintzailleak goraidu eta kementzea. Ortik, bere idazkietan asmatzen dan airealako poesi-giroa: izan dira eta badira Euskalerrian egite ikaragarriak, eta berak be bizi izan ditu; alan be, danaren azpitik eta ganetik biziaren eta onaren gorantzako indarra somatzen dabe here lanak.

2. Bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzi dau. Baiña euskalki guztietako itzak eta esaerak eurrez erabiltzen dituan idazlerik bada, Santi

Onaindia dogu. Pausuz-pausu zapaldu izan ditu maite dituan Euskalerriko errialde eta auzoetako bazterrak: bere arloa dauan *berbean, literaturan* be argi bai argi agiri da Euskal Lurralde guztiakanako *maite-zabalitasun* ori.

3. Eliz-gizon eta idazle ekintzan artuemon ugari izan ditu: eurotarik naiko, eritxi eta erizpide ezbaridñetakoekaz. Asikeratik alboratu, zapuztu orde, kultura alkarrizketa burutu izan dau.

Bere gurasoak eta Euskalerriak, ezer galdu ete dabe S. Onaindiak erlijioso-bizitzeari jarraitzeaz? Bidezko dogu une onetan Lino Akesolo bere ikasbidea aipatzea eta euren aldikideak diran Ma-



nuel Lekuona, Jose Migel Barandiaran edo Alberto Onaindia..., beste askoren ordezkariak lez. Egia da, S. Onaindiaren ikaskide batzuk eta beste ainbat eta ainbat Euskalerritik kanpo izan dira lanean: baiña orreexek atan be ezagutazo eta maitagarri egin dabe

euskaldunaren izena munduan zear. Aberria, azken muiñean, geuk egiten dogu eta geugaz daroagu.

Azkenez, ia esan bearrik ez: S. Onaindiak eta beste elizgizonak, errigintza bultzatzean, era batera naiz bestera, tinko elburu oni loturik diardue: gizon-emakumeetan Kristoren Barri Ona biotz eta gorputz biurtu daiteła. Kristo barik gizona here goi-uste, leia eta lorpen guztiakaz utsalaren esku dagoalako. Beragan ostera, zuzen, maitagarri, bikain eta mazala danak oso-betea dau; baiña baita bizitzan uts eta porro egin dabelakoak be (danok egiten dogu) itxaropenaren iturria agor-ezifia dauke. «Josu'ren fedea besterik ez daukot», idatzi eban Lauaxetak ilko eben goizean: Kristo danaren, oiñarri eta elburu, bera bidea eta bizia.

*Meza ostean dantzak ikusita, itzaldiak entzuteko gertatuta egoan aretora asko joan ziran.*

*Ekintza akademiko orren zuzentzaille lez MIKEL ETXEBARRIA asi zan agurtzen eta omenaldia azaltzen:*

Guztioi ongi etorriak, batez ere Aita Santi gure lagunari, egun onetan laguntzera eta otoitzera etorri zarien guztioi: Anton Aurre jauna, J.A. Pradera Jauna, Mari Karmen Garmendia, Joseba Arregi Jauna eta euskera munduko lagun guztioi.

Zornotzako Udaletxeak uste eban eta uste dau Aita Santik ainbat merezimentu egin dituela omenaldi au egiteko, eta orretarako ekintz-egitarau bat aurkeztu eta prestatu dau. Ta au da ekintz-egitarau orren egunik aundiena.

Baia itzaldiagaz asi aurretik, nik esango neukena da Zornotzako Udalak artu dituen erabakiak: alde batetik Aita Santi Onaindia, Amorotokoa jaiotzez, bertan ainbeste urtetan bizi izan da, bertako *seme kutun* izendatzea; azken batetan Aita Santi gutar bat dogu-eta. Bigarren erabakia ekintza guzti oneek prestatzea eta aurrera eroatea. Irugarren erabakia «Aita Santi Onaindia» bere izena daroan euskal literaturari buruzko beka bat sortzea, urte bitik

urte bira izango dana, 800.000 pezetakoa; eta onen asmoa auxe da: Aita Santik egin dauan lanak jarraitzailleak izan dagizala.

Eta azkenez liburu biren aurkezpena: alde batetik liburuxka au Santi Onaindiaren euskal-idazlanen bibliografia, liburu txikia benetan, baña esanguratsua; emen agertzen diren ainbat eta ainbat izenburu dira Aita Santik egindako lanen izenburuak. Eta bigarre-na Karmel aldizkariagaz batera beste liburu bat: Aita Santi Onaindiaren «Olerki guztien bilduma». Eta bilduma au Juan Mari Lekuonaren itz-aurreagaz agertzen da.

Emendik nire eskerrik beroenak etorri zarien guztioi, J.M. Lekuona bere laguntzagaitik, Julen Urkiza, liburuaren egille eta omenaldi onen laguntzaillea.

Eta benetan orain asten da gaurko ekintza akademikoa.

*Asteko, Jon Azpillagak eta Aritz Lopategik launa bertso bota zituen. Emen batzuk:*

Azp.: Txorien gisa ontaz pentsatzen  
esnatua naiz gaur goizez:  
ondo egiteko sekulan ere  
ez da egon bear lotsez;  
olerkari bat omendutzeko  
danak batu gera pozez  
Aita Santiri milla zorion  
ta eskerrik asko biotzez.

Lop.: Arrazoi batek alkartu gaitu  
emen guztiok batera:  
Aita Santiri egiten gatoz  
merezi duen arrera.  
Ainbat liburu bere indarrez  
atera ditu aurrera,  
argaitik gatoz gaur beregana  
gure eskerrak ematera.

Azp.: Bertsolari ere etorri,  
gara zarra ta gaztia;  
tokatutzen zan Aita Santiri  
zor doguna erakustia.  
Bertso inguruan ortxe daram  
bere bizitza guztia.  
Gu zure izar txikiak gera,  
zu zera gure eguzkia.

Lop.: Euskeran alde lan egin dozu  
oso gogotsu eta fin.  
Ainbeste bertso biltzeko ere  
egiaz ainbat alegia.  
Zure moduko gizon geiago  
bear ditugu Euskadin  
gure erriko kultura zarra  
beti salbo egon dadin.

<p>Azp.: Eleiza eta euskera izan da bukatzen ez dan jarduna. «Milla euskal olerki eder» or dago jenteak ezautzen duna; olerkarien maixua zera, bertsolarien laguna; bedeinkatua mundu ontara zu sortu ziñan eguna.</p>	<p>Lop.: Langille fina izan zara zu alaia eta bizkorra, naiz eta sarri zeure inguruan eduki giro gogorra. Argaitik gaur zu omentutea dogu gauza derrigorra; zuzena zeure sinismenetan eta euskaldun jatorra.</p>
--	--

*Lebenengo J.A. PRADERA jaunak labur-labur agertu eutson Santiri bere esker ona:*

Aita Santi, badakizun lez, gu aintxiñako lagunak gara, eta niretzat omenaldi onetan egotea oso pozgarria da. Ta gañera gaur bi gauzagaitik: bata, zeugaitik, zeure omenaldia dalako, eta bestea gaur eta emen euki dodalako lenengo aukera neure langusua, Aritz Lopategi, bertotan entzuteko. Eta orregaitik be eskerrik asko. Nik orain mitin bat daukot Sondikan ordu batetan, eta orregaitik arrapaladan urten bear dot. Eskerrik asko, Aita Santi, eta ikusiko dogu alkar.

*Gero Juan Mari Lekuonak, Euskaltzaindiko Lendakari-ordeak osotu eban itzaldi akademikoa. Nik argitaratutako S. Onaindiaren «Olerki guztien bilduma» liburua ren agertzen da Lekuonaren itzaldia, omenaldi eguneko baño luzeagoa. Orregaitik ez noa emen itzaldi ori eskeintzera.*

*Gero J.A. GURTUBAY, Zornotzako alkate jaunaren itzak:*

Amorebieta-Etxanoko Udalak pozez antolatu dau omenaldi hau. Aita Santi guretzat oso ezaguna eta maitatua dan pertsona bat dogu, bertokoa ez izan arren, bertokoa dala esan daikegu, gerra aurretik etorria da eta gure herriagaz bat egin dau eta.

Nire hitzalditxoan Aita Santi eta Larrako konbentua omendu gura neikez, hain gogoko dan Larra herritar guztiontzat eta zer

esanik ez niretzat, Larrabarrenako etxe batetan hezia eta Larrako monagiloa izanda.

Aita Santi Larraren emaitzarik gorena dogu eta Larra eta Aita Santi niretzat eta nire ustez herritar gehienentzat garrantzi haundikoa izan dira hiru arlotan:

-Kristautasunaren arloan.- Karmengo Amaren maitasunean hezi gara eta Larraren eragina gure herria gainditu eta Bizkaiko hainbat herritara heldu da.

-Euskal Kulturaren arloan.- Larra beti izango dogu euskararen gordeleku, euskal kulturaren bultzatzaile, hor doguz «Kármel» eta «Olerti» eta Larran egindako hamaika kultur ekintza eta beti guzti horren erdian Aita Santi egon da.

-Abertzaletasunaren arloan.- Gerra osteko urte ilunetan Larra izan da abertzaleentzat beti piztuta egon dan argia eta behar izan ezkeru, ateak zabalik euki dituan aterpea; hemen zenbait batzar egin dira, zenbait ekintza prestatu dira eta ez noa hemen Karmengo Amaren koroiaren gertakizunaz hitzegitera, eta danak bertakoen oneritziagaz eta sarritan laguntzagaz. Hemen gauza gitxi egin daitezke Teodorok jakin barik eta Aita Santiren onarpen barik.

Alkate bezala, Larrabarrenako ume bezala eskerrik asko, Larra, eskerrik asko, Aita Santi, eta bide berdinetik jarraitzea eskatzen deusut.

*Ostean ANTON AURRE Bizkaiko Batzar Nagusiko lendakariaren txanda izan zan; emen itzaldiaren zati batzuk:*

Egun on guztioi.

Aita Santi gure izan-izangoaren ikurra dogun euskeran zu izan zaitugu langille fiña aspaldiko urteetan, aspaldiko urteetan nik txiki-txikitatik ezagutu zaitut lan orretan jo eta ke, baita ezagutu zaitut zeure txapel aundia jantzi eta erriz erri zeure lanetarako bear izan dozuzan eginbearrez gain alperkerian eta nagikerian zeure

askatasunez beste era batera gaztetako euki dozun denpora ori, ba, beste gauza batzuk egin bearrean, lanean euskereagaitik eta nik uste dot or eskerrak emon bearrean gagozala, baña sakon-sakonetik eta benetan.....

Len esan dodan lez euskerea bait da gure erriaren izan-izangoa, gure erriaren oiñarria eta sustraia. Euskerea galduten dogunean gu erri lez beste gauza bat izango garealako, Euskalerría barik. Eta orregaitik ba, nik emon olako gomutapentxo bat izan dagizun, gaurko egunagaitik ekarri datsut Gernikako Zugatzaren alako marrazki edo dibujo bat.

*Eusko-Jaurilaritzan euskeraren arazoetan arduraduna dan Mari KARMEN GARMENDIAK azaldu ebazan bere oroipen pertsonalak:*

Nik ezer gutxi esan dezaket, gañera ni baiño lenago itz egin dutenek uste det esan dituztela nik baiño apaiñago eta dotoreaga esan dituzten gauza guztiak, baiño auxe esan naiko nuke: nik 1964an erosi nuen Donostian: «Milla euskal olerki eder» andereño izateko asmotan Donostira joan nintzan garaian eta gañera Ricardo Arregik, Joseba Arregiren anaiak esanda erosi nuen... Eta benetan asko erabilitako liburua det, eta oso maite dedan liburua det. Oleri berriz ez zan gure etxean sekulan falta izan, eta orrekin eta emen esan diren gauza guztiekin orixe esan nai diot Aita Santiri: Eusko Jaurilaritzaren euskeraren gauzako arduradun naizen aldetik edo, ba bene-benetan eskerrik asko biotz-biotzez.

Guk gazteago geranok badegu zer ikasirik zuengandik eta lendik zatoztenok eta geroxeago atzetik etorri geranok ustet declala elkar artuta, Anton Aurrek lentxoago esan duen bezela, apustu jakin baten alde jokatu bear degula. Erri onek Euskal-erri izaten jarraitu dezan, erri onek ortan jarraitu dezan, ba danon alegiñ orrekin, ba aurrera egin bear degula. Bene-benetan eskerrik asko, Aita Santi. Nik gizon pakegillea jotzen zaitut, benetan zuregandik zerbait ikasi baldin badet beste gauza askoren artean, orixe izan da: biotz zabalekoa, irripartsua eta inguruan urbiltzen eta zure



ingurura gatozenontzat beti izan dezu itz gozoa parre-irudia. Azkenean itz orrekin labur biltzen dan ori: pakea eratzen duzun gizona.

*Eta gero JOSEBA ARREGIK itzaldiei amaiera emon eutsen itz oneikin.*

Aita Santik esaten dit ainbat nai ainbat denbora erabiltzeko izketarako, baiñan oso laburra izango naiz; azken batean ni neu eta danok irrikaz bai gaude Aita Santiren beraren itzak entzuteko eta beraiek dira gaurkoan garrantzizkoenak. Oso labur itz egingo dut beraz, eta gaiñera oroimenetik aspaldiko oromenetik. Mari Karmen Garmendiak berak aipatu dituen oroimen oietatikan.

Aita Santi neretzat eta nik ustc, nire belaunaldiko euskaldunentzat txikitatik ezaguna den norbait da, beraren bitartez urbildu bait gera euskal literaturara. Eta gaiñera Aita Santirekin batera beti nire ama zanaren oroimena ta irudia biak datorzkit, Aita Santik eramaten bait zituen KARMEL aldizkariak nire etxera amari enkar-gua emanaz Karmel Andoain eta inguruetan zabaltzeko. Beraz, oroimena da beti burura datorkidana Aita Santi ikusten dodanean.

Denak nire aurretikan esan duten bezala Aita Santiri eskerrak, eskerrak landabizikoz «Milla euskal olerti eder» bilduma idatzi zuelako; ura izan ez balitz nire belaunaldiko gazteak ez genduan jakingo euskal literatura bazenik; ez giñan sekulan urbilduko euskal-letretara, baña orretaz gaiñera «Milla euskal olerki eder» bildumak duintasuna itzuli zigun. Euskaldun izateak bazuen tradizio bat, bazuen literatura bat burua zutitzeko, gogoa eta izpiritua eman zigun. Eskerrik asko.

Eskerrik asko baita ere euskerari eskeifñi diozulako zure bizi-tza, etxetikan zenekarren euskerari, inguruan ezagutu duzun euskerari, euskera biziari ibilli zaren tokietan ezagutu eta ikasi duzun euskerari, euskera biziari. Eskerrik asko orregatik, eta baita ere eskerrik asko, Aita Santi, guztiori, lan guzti ori, Mari Karmenek esan duen bezela, iñorekin aserretu gabe egin duzulako, beti elkarlanerako prest, edonorekin elkar jardunean ibiltzeko prest,



iñolako setakeriarik gabe, aserrerik gabe, umorez eta pakegille bezela.

Eta azkenik eskerrik asko, Aita Santi, zuri eta zure belaunaldi-ko guztiei. Gaur emen euskeraz ari baldin bagara, zu bezelakoek eusko-bizkunde garai aretatik etorriaz garai sailletan illunpe izugarri batean euskal itza eta euskal itzarekin batera euskal erria bizirik eduki zutelako. Gu ez giñateke gaur euskalerra eta euskaldun izango zuek izan ezpaziñaten eta egin bear zenutena egin ezpazenuen. Eusko bizkunde artatikan gerratea ta gerrate ondoko tunel luze illun orretan lanean jardun zu eta zu bezelakoak eta batzuk bakarrik aipatuko ditut, zu, Aita Lino, M. Lekuona, Ant. Maria Labaian, Erkiaga, eta ainbat eta ainbatek euskal itzari eta euskalerrari bizirik eutsi diozute. Eta orregaitikan gara gu gaur euskaldu-

nak. Esango al dogu guk gaur euskaldunok baita ere zuek izan duzuten borondatea, izpiritua eta adorea etorkizunerako zubi izan gaitezen, zuek ere tradizioetik guregana zubi izan zaraten bezela izateko. Eta orrela etorkizunean ere euskalerririk egon dadin euskal itza bizirik egongo delako eta orrela, zuk ainbat maite zenituen gudarien odolak eta sufrimentuak bearrezkoak dituen frutuan eman ditzan.

Eskerrik asko, Aita Santi.

*Gero Aita Santi bera asi zan izketan, luze, bere ta besteen irri-  
ta parre alaisuekin naastatuta.*

*Eta bazkalondoan an asi ziran bero-bero bertsolariak: Jon  
Azpillaga, Aritz Lopategi eta Jon Enbeita. Bakoitzak amarna  
bertso. Emen bertso batzuk:*

Azp.: .....zaitugula  
.....  
Aita Santi ere lasaitu jaku  
legortu jakoz begiak.  
Zu zara gure artzaina eta  
gu gara zure ardiak.  
Urte askuan gorde zaitzala  
Karmengo Amaren argiak.

Azp.: Amorototik erten eben ta,  
gero asko ikasia,  
loreak ondo tratatu ditu  
eta ebagi sasia.  
Gero fruturik artuko bada  
bota bear zan azia,  
baña oraindik ez dezu jaso  
erneta dagon guztia

Enb.: Gizon bakoitzak bere arazo  
ta eginbearrak ditu;  
ori dala ta ez naiz etorri,  
naiz ta ortarako deitu,  
baña gorputzak baño geiago  
biotzak alkartzen gaitu,  
naiz ta berandu azaldu barik,  
gaur ezin nintzen gelditu

Azp.: Euskaran alde ipiñi ditu  
bere biotz ta burua.  
Bere olerki zoragarriez  
alaitu du ingurua;  
alare gure etorkizuna,  
ez da oso segurua.  
Aita Santi da Euskalerriko  
gazteontzat ejenplua.

Enb.: Omen au dozu bizi guztiko  
ainbat ekintzaren sari;  
egin dozuna ezagun dala  
gaur emen dago nabari.  
Neke artean erein zeindula  
gaur biurtu jaku gari,  
euren erria maitatzen duten  
euskaldunentzat opari.

Azp.: Olerki eta bertso lanian  
asi ziñan gazte, gazte  
ta ainbat liburu egin dituzu  
ordutik asterik aste.  
Euskalerriko gidari zara  
nik beintzat ori dot uste;  
gaurkoa ere ezin zan izan  
merezki dozun ainbeste

Azp.: Bere lanean gaur erri baten  
ta biar berriz bestian.  
Larogi urte dauzkanik ere  
eztago bere ustian;  
zarrak billatu, herriak egin;  
or dabil bizi guztian.  
Biblioteka aundi bat dago  
sotana orren azpian.

Enb.: Euskara garbi ta alai zen  
zure agotik irtena;  
gudariekin naiz besterekin  
beti zuzen ta lerdena.  
Ondo egintzat emango nuke.  
Aita Santi, nik guar dena,  
emen gaudenok egingo bagendu  
zuk egin dozun laurdena.

Enb.: Era ontako gizonen kontra  
ezin da jeiki iñor be.  
Zu ezagutu eta maitatzen  
dabiltza ainbat oiñorde.  
Ez da urrerik guk emateko  
zuk egindakoen orde.  
Gaurko gazteen erredugarri,  
Jainkoak zaitzala gorde.

Azp.: Emen dana da urkoa eta  
emen dana da laguna,  
gogoan daukat alkate jaunak  
leentxuago esan duna.  
Urte guztitan pasatzen dogu  
lagunarte bat leguna  
ia alkarrekin ospatzen dogun  
Kamengo Amaren eguna.

Enb.: Amоротotik Larra aldera  
zetorren sasoi bateko,  
praille egina ez da ez izan  
gure izkuntzaren kalteko.  
Beti parrezka ta beti alai,  
beti zerbait esateko.  
Milloi askoren bearririk ez da  
pozirik bizi izateko.

Lop.: Berak ipiñi zuen euskaldun  
guztiontzako argia;  
olerkietan adierazi  
ordun ta oingo egia.  
Beste milla urtez be egongo da  
bizirik Euskalerria  
danok eukitzen ba dogu Santin  
umorearen erdia.

Enb.: Apurka-apurka gure Azpillagak  
bere aria darua,  
Karmengo Ama emen jaita da,  
ortan dago segurua.  
Gustatzen jako banketa eta  
kafe, kopa ta purua,  
badaezpada he konbidatu dau  
onek beraren burua.

Azp.: Ogei bat minutuko denbora  
jarri da gure eskuan,  
andikan gora pasa gerala  
ni nago nere juskuan.  
Aita Santiren arloa utzita,  
bestera bai gera jua.  
Besarkada bat Aita Santiri,  
ta segi urte askuan.

Azp.: Larra aldera inguratzen naiz  
joan dan aspaldi batian,  
ta beti pozez, ez naiz izaten  
sekulan ere kaltian.  
Priore jaunak esan eustana  
oraindik igazko urtian,  
bildurrik gabe ni etortzeko  
bizi naizen bitartian.

Lop.: Ez dakit gure Aita Santiren  
neurrikoak izan garen;  
adarra jotzen asi bai gara  
beraz kantatu ondoren.  
Alkarren kontra asi gerade  
edozer esaten emen;  
ixildu egin bearko dogu  
txarrenak esan baiño len.

Lop.: Azpillaga au jatuna dala  
guztiok gara lekuko,  
ikusten danez itxura ere  
gizon ederrana dauko.  
Konturatuko ziheten asko,  
nik auxe esan orduko:  
Azpillagaren mai ortan ez zan  
gauza asko sobratuko.

Enb.: Ni etortzean ia amaitzen  
dago emengo omena.  
Eskerrik asko esatea da  
errezena ta onena.  
Milla laztan artuko zendun  
gaur andre zein gizonena;  
gitxi bada be, artu egizu  
zure ikasle Jonena.

Azp.: Egun orretan zer gertatzen dan  
emon bear dot aitzera,  
mezan bertsotan or jardutzen naiz  
sermolarien antzera.  
Jan-edaneko inbitatuta  
beti egin dot atzera,  
praille guztiak agurtu eta  
Ondarrura bazkaltzera.

J.U.